

BATERALABS-EN BIDASOALDEKO ESKUALDEKO 2. SAIOAREN AKTA

Data: 2026ko uztaialren 7a (asteartea)

Lekua: Palmera Montero Gunea, Irun, Gipuzkoa

1. Ekitaldiaren helburua

Ekitaldiaren helburua **Bidasoaldeko** herritarren partaidetza-laborategiari jarraipena ematea izan zen. Laborategi horren xedea da klima-aldaketa aurrean eskualdearen errealitatera egokitutako irtenbideak sortzea, herritarren parte-hartzearen bitartez. Bigarren saio honen helburu nagusia aurreko saioan identifikatutako erronkak eta problematikak lantzea izan zen, hautemandako erronkei erantzuteko proposamen zehatzak elkarlanean garatuz.

Saioak aukera eman zuen **parte-hartzaileek lehenetsitako jarduera-eremuetan sakontzeko**, irtenbide posibleak definitzeko, inplikaturako eragileak identifikatzeko eta etorkizunean gauzatzeko lehen jarduera-ildoak ezartzeko. Horretan guztian udal eta eskualde mailako erakundeetako ordezkariak, auzo-elkarteak, sektore-elkarteak eta klima-aldaketa aurrean eskualde jasangarriago eta erresilienteago bat eraikitzen lagundu nahi duten herritarrek parte hartu zuten.

2. Ekitaldiaren garapena

2.1 Blokeen garapena

Jarraian, ekitaldiaren blokeak, esku hartzeko benetako denborak eta arduradunak zehazten dira:

1. Ongi etorri instituzionala (5 min)

- **Arduradunak:** Cristina Laborda, Irungo alkatea eta José Ignacio Asensio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun diputatua.
- **Deskribapena:** Saioa Irungo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ongietorri hitzekin hasi zen. Bertan, eskerrak eman zitzaizkien parte-hartzaileei BateraLabs prozesuan parte hartzen jarraitzeagatik. Era berean, lehen saioan egindako lana

nabarmendu zen, baita bigarren jardunaldi honen garrantzia ere, Bidasoaldean identifikatutako klima-erronkei erantzuteko proposamenak elkarlanean garatzeko.

2. Lehenengo saioan identifikatutako erronken itzulketa (5 min)

- **Arduradunak:** Dorleta Orúe-Echevarría, Naturklima Behatokiaren koordinatzailea.
- **Deskribapena:** Lehen saioan identifikatutako erronkak eta planteamenduak aurkeztu ziren, eskualdean jarritako postontziaren eta bateralabs.eus webgunearen bidez jasotako ekarpenetan oinarrituta. Era berean, erronkak gai-ardatzen arabera aurkeztu ziren, eta kolektiboki identifikatutako problematikak modu bisualean erakusten zituzten mapak aurkeztu ziren.

3. Parte-hartze prozesuaren aurkezpena (5min)

- **Arduraduna:** Luzia Salamanca, Osoigoko proiektuen arduraduna.
- **Deskribapena:** Saioaren dinamikaren azalpen zehatza: saioan lantzeko erronkak eta planteamenduen lehenengo lehenespena egiteko erabilitako irizpideen eta dinamika parte-hartzaile desberdinen azalpena, hala nola, lehentasunak eta proposamenak batera sortzeko lana.

4. Parte-hartze dinamika (40 min)

Saioa jardunaldian landuko ziren erronkak eta planteamenduak hautatzeko prozesuaren azalpenarekin hasi zen. Lehenengo saioan jasotako ekarpen kopuru handia zela eta, aurretik antzeko proposamenak araztu eta taldekatu ziren, bikoiztasunak ezabatuz eta gaika antolatuz.

Ondoren, proposamenak hiru irizpideren arabera aztertu ziren: irizpide teknikoa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekin bat zetoze baloratzeko; irizpide politikoa, Jasangarritasun Departamentuaren ildo estrategikoekin lerrokatuta zeudela balioztatzeko; eta irizpide ekonomikoa, aurreikusitako aurrekontuarekin eskualde guztietan proposamenak garatu ahal izatea kontuan hartuz.

Ondorioz lortutako erronkak eta planteamenduak parte-hartzaileei aurkeztu zitzaizkien, eta haiek kolektiboki lehenetsi zituzten, saioan landu beharreko ardatz tematiko bakoitzeko erronka bat hautatzeko.

Ostean, parte-hartzaileak ga-ardatzetan antolatutako lan-mahaietan banatu ziren, eta, lan-fitxen laguntzaz egindako ko-sorkuntza dinamika baten bidez, hautatutako erronketan sakondu eta horiei erantzuteko proposamen zehatzak garatu zituzten. Kasu honetan, parte-hartzaile kopurua dela eta, bost lan-mahaitan banatu ziren, nahiz eta zazpi gai-ardatz landu ziren, eta, beraz, zazpi proposamen garatu ziren.

Azkenik, landutako proposamenak partekatu egin ziren eta lehentasun-ariketa bat egin zen, parte-hartzaileen ustez garrantzitsuenak edo premiazkoenak zirenak identifikatzeko. Azpimarratu zen leheneste horrek ez zuela izaera loteslerik eta ez zuela suposatzen garatuko diren proiektuen behin betiko hautaketa. Aitzitik, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat balorazio-elementu gehigarri bat da, ondoren egingo diren azterketa teknikoarekin eta bideragarritasun-azterketarekin batera. Saioan sortutako proposamen guztiak prozesuaren azken portafolioan jasoko dira.

Jarraian, lan-mahaietan landutako proposamenak jasotzen dira, azken lehentasun-ordenaren arabera. Kasu honetan, lehenengo bi proposamenek puntuazio bera lortu zuten.

1. Garraio publikoaren maiztasuna, ibilbideak eta ordutegiak handitzea

Mahaiaren informazioa:

- **Ardatz tematikoa:** Mugikortasun jasangarria.
- **Erronka:** Motordun garraioaren konektibitatea eta baliabideak hobetzea.
- **Proposamena:** Garraio publikoaren zerbitzuak handitzea: maiztasunak, ibilbideak eta ordutegiak.

Proposamenaren garapena:

- **Arazo zehatza:** Maiztasun, ibilbide eta ordutegi eskasek herritarrak garraio pribatua erabiltzera bultzatzen dituzte.
- **Proposatutako irtenbidea:** Hiri barruko eta hiriarteko autobus-zerbitzuen maiztasuna handitzea, ibilbide gehiago eskaintzea eta 24 orduko garraio publikoa ezartzea.
- **Kokalekua:** Eskualde osoan. Ibilbide berriak lehentasunez auzoetara eta Hondarribira zabaltzea.
- **Onuradunak:** Herritar guztiak.
- **Inplikaturako eragileak:** Administrazio bakoitzeko mugikortasun arloko sailak.
- **Hurrengo urratsak:** Garraiorako baliabide materialetan eta giza baliabideetan inbertitzea.

2. Plastikoaren birziklapenari buruzko sentsibilizazioa eta birziklatzean dirua itzultzen duten makina adimendunak

Mahaiaren informazioa:

- **Ardatz tematikoa:** Hezkuntza/Kultura.
- **Erronka:** Jardueretan, azoketan eta ekitaldietan plastikoaren eta beharrezkoa ez den merchandising-aren erabilera murriztea.
- **Proposamena:** Plastikoaren birziklapenari buruz sentsibilizatzea eta birziklatzean dirua itzultzen duten makina adimendunak ezartzea.

Proposamenaren garapena:

- **Arazo zehatza:** Beharrezkoa ez den hondakin kopuru handia sortzen da. Adibidez, edukiontzietatik kanpo hondakinak eta plastikoa pilatzen dira; arazo hori jaietan areagotu egiten da (San Martzialetako kontzertuak eta botiloiafenomenoa aipatu ziren adibide gisa). Gainera, birziklapenaren inguruko heziketa eta kultura falta antzeman zen, baita plastikozko merchandising kutsatzailearen gehiegizko erabilera ere.
- **Proposatutako irtenbidea:** Birziklatzea sustatzeko dirua itzultzen duen edukiontzi adimenduna ezartzea eta sentsibilizazio-ekintzak egitea, bereziki gazteei zuzenduta.

3. Erakundeen babesarekin energia-komunitateen sorrera sustatu eta horren inguruan informazioa ematea

Mahaiaren informazioa:

- **Ardatz tematikoa:** Energia.
- **Erronka:** Energia-autonomia lortzea.
- **Proposamena:** Erakundeen babesarekin energia-komunitateen sorrera sustatu eta horren inguruan informazioa ematea.

Proposamenaren garapena:

- **Arazo zehatza:** Premiazkoa da energia berriztagarriaren ekoizpena handitzea eta energia kutsatzaileagoen kontsumoa murriztea, herritarrei energia-eredu osasungarriago, jasangarriago eta ekonomikoagoak ezagutzen eta erabiltzen lagunduz.
- **Proposatutako irtenbidea:** Energia-komunitateen sorrera sustatzea eta horiei buruzko informazioa ematea, erakundeek komunitate horiei laguntza eskainiz eta haien sorrera erraztu dezaketen kolektiboekin elkarlanean arituz.
- **Kokalekua:** Instalazioak jar daitezkeen eraikin publiko eta pribatuetan.
- **Onuradunak:** Erakundeak, kostuak murriztuko baitituzte; parte hartu nahi duten herritarrak; eta, oro har, klima-aldaketa arintzea.
- **Inplikaturako eragileak:** Erakunde publikoak eta parte hartu nahi duten herritarrak.
- **Hurrengo urratsak:** Administrazio publikoak energia-komunitateei eta antzeko proiektuei buruzko informazio tekniko eta ekonomiko eskaintzea.

4. Espazio publikoa birnaturalizatzea

Mahaiaren informazioa:

- **Ardatz tematikoa:** Osasuna.
- **Erronka:** Gune berdeen eta klima-babesguneen gabezia.
- **Proposamena:** Espazio publikoa birnaturalizatzea.

Proposamenaren garapena:

- **Arazo zehatza:** Tenperatura altuak gero eta ohikoagoak dira, eta horrek atsedean hartzeko eta espazioez gozatzeko gune egokiak izatea beharrezkoa egiten du.
- **Proposatutako irtenbidea:** Gune berde gehiago sortzea, klima-babesguneen kopurua handitzea eta espazioak aztertu eta egokitzeko plan bat egitea.
- **Onuradunak:** Herritar guztiak.

5. Birziklapenaren inguruko sentsibilizazio-kanpaina berritzaileak

Mahaiaren informazioa:

- **Ardatz tematikoa:** Ekonomia zirkularra.
- **Erronka:** Birziklapen-tasa handitu eta erraztea.
- **Proposamena:** Hondakin-edukiontzien erabilerari buruzko sentsibilizazio- eta komunikazio-kanpainak egitea.

Proposamenaren garapena:

- **Arazo zehatza:** Birziklapen-tasa eta paperontzien erabilera ez dira behar bezalakoak. Herritarren artean gizalege falta antzematen da.
- **Proposatutako irtenbidea:** Hezkuntza- eta sentsibilizazio-kanpaina berritzaileak egitea. Ohiko komunikazio-kanpainak ez dira nahikoak.
- **Kokalekua:** Ikastetxeetatik hasi eta auzo-erkidegoetaraino; helburua herritar guztiengana iristea da.
- **Onuradunak:** Hiria eta herritarrak.
- **Inplikaturako eragileak:** Ikastetxeak, auzo-elkarteak eta administrazio publikoa.
- **Hurrengo urratsak:** Herritarrengandik hurbilekoak izango diren publizitate-kanpaina berritzaileak diseinatzeko enpresa bat kontratatzea. Mezua errazago barnera dadin, Irungo herritarrek «berezkotzat» dituzten komunikazio-bideak erabiltzea.

6. Basoen mantentze-programak indartzea

Mahaiaren informazioa:

- **Ardatz tematikoa:** Klima-aldaketa.
- **Erronka:** Gipuzkoako basoak prebenitu, zaindu eta indartzea, baso-suteak murrizteko.
- **Proposamena:** Basoen mantentze aktiboa indartzea eta natura-eremuen kudeaketa hobetzea, suteak prebenitzeko.

Proposamenaren garapena:

- **Arazo zehatza:** Azken urteotan klima-larrialdia gero eta nabarmenagoa da. Bero-boladak horren adibide dira, eta tenperatura altuek basoetan suteak izateko arriskua handitzen dute.
- **Proposatutako irtenbidea:** Kontzientziazioa eta prestakuntza sustatzea; mantentze-eta prebentzio-neurriak indartzea; herritarren parte-hartzea sustatzea; eta lankidetzazko sareak sendotzea, protokolo argi eta bateratuak ezartzeko.
- **Kokalekua:** Gipuzkoako basoak.
- **Onuradunak:** Planeta eta pertsona guztiak.
- **Inplikaturako eragileak:** Administrazio publikoa (Foru Aldundia, udalak eta gainerako administrazioak), Bidasoa eskualdeko elkarteak, ikastetxeak eta Eusko Jaurlaritza.
- **Hurrengo urratsak:** Dauden programei baliabide gehiago esleitzea.

7. Uholde-arriskua duten oinezkoentzako guneen eta paduren diagnostikoa

Mahaiaren informazioa:

- **Ardatz tematikoa:** Hiri-berroneratzea / Eremu estrategikoak.
- **Erronka:** Ibaiak eta urak zaintzea.
- **Proposamena:** Padurak babestea.

Proposamenaren garapena:

- **Arazo zehatza:** Sedimentuen eta hondakinen metaketak, uholde-arriskuarekin batera, euri-jasa handien, itsasgoraren eta itsas mailaren igoeraren ondorioak larriagotzen ditu.
- **Proposatutako irtenbidea:** Itsas mailaren igoerari aurre egiteko hartu beharreko neurriak identifikatzeko azterketa eta diagnostikoa egitea.
- **Kokalekua:** Dumboa/Santiago, Gal eta Behobia ingurua, merkataritza-eremua eta etxebizitza berrien ingurunea.
- **Onuradunak:** Herritar guztiak.
- **Inplikaturako eragileak:** Administrazio publikoa eta eragindako eremuetako herritarrak, hartu beharreko neurrietan parte hartuz.